

noaueus

Asier Azpiroz bertsolaria
igandeko finalaurrekoan
arituko da

Igandean, Erle Eguna



Usurbilgo Kafe Tertulia taldea

**“Zapalkuntzei aurre egiteko
tresnak agerian jarri nahi ditugu”**

GOLDWELL
ELUMEN

*i
l
e
a
p
a
i
n
d
e
g
i*

m
I
mistoa

Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951


**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).
MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA
943 36 21 63 (24H)
•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK


www.funerariagonzalez.es

 **pikabea**


**ASEGURU ARTEKARITZA
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01 
pikabea@pikabeaaseguruak.com

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS

Albiste iruditzen

Tximista batek Atxegalden jo zuen



Azaroaren 15ean izan genuen ekaitzaldian gertatu zen. Tximistetako batek Ariztitxo kaleko eraikinetako baten teilatua jo zuen. Sustoaz gain, kalte material arinak baino ez zituen eragin. Teila batzuk erori zirenez, etxe ataria itxita izan zuten asteburuan.

Laburrean

Makillatze ikastaroa Santuenena Auzo Elkarte

Abenduaren 7an larunbata, arratsaldeko 17:00etan auzo elkarte egoitza, gazte eta helduentzat. Interesdunek azaroaren 30a baino lehen eman behar dute izena 670 027 731 telefono zenbakian.

Zinea eta palomitak Bihurri ludotekan

6 urteko haurrentzat antolatu du saioa Bihurri ludotekak. Azaroaren 29an ostirala, film bat ikusi eta palomitak jateko aukera aparta izango dute. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera, ludotekan bertan.

Abenduaren 8an, Usurbilgo odol emaleen bazkaria

Bazkaritarako bilduko dira Atxega Jauregian. Bertaratu nahi duenak izena eman dezala aurrez, telefono zenbakiotako batera deituta: 619 125 644 (Mari Jose), 943 363 102 (Agustina), 943 370 723 (Maite).

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaidea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Ariz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Itxaso Orbegoza

Astelehenean emakumeok kalera!

Datorren astelehena egun seinalatua dugu emakumeok, hala izan beharko ez baluke ere. Jasaten ditugun zapalkuntzak ardatz hartuta, beste behin, gizarte eredu honekin amaitzeko eskatzera gatoz. Triste da oraindik ere, urteroko aldarrikapenekin atzera eta aurrera ibili beharra, eta eskakizunen zerrenda geroz eta luzeagoa da. Arrakala estutuz joan beharrean, askotan, badihuri handituz doala.

Azalera geroz eta egoera gehiago, eta zenbaitetan geroz eta gordinagoak ateratzen dira. Alde batetik, gizartearen aurpegi zikinenari begiratzen diogu, existitu ez, edo existituko ez den esperantzarekin

beste aldera begira geunden aurpegi hori. Bestalde, borrokarako indarra ematen du gordintasun horrek. Nolabait, kontzienteago gara bizi garen gizarte honetan zein funtzio betetzeko sortu gaituzten. Geroz eta gehiago gara egitura erabat irauli behar dela iritzi diogunak, eta ez da harritzekoa; ikusi besterik ez dauka albigiakiak eta gure inguruko testigantzak. Behin begiak irekita, ez daude atzera ixterik.

Kezkatuta nauka bestalde, feminismoa hartzen ari den irudiak. Duela bost bat urte, feministak “gutxiengo emakume erradikalak” ziren, mespretxuz tratatu beharreko emagaldutak. Egun, gizonezko guztiak ere feministak egin zaizki-

gu, alajaina. Zentzu horretan, geroz eta lausoagoa da benetan egunero borroka egin nahi dutenen eta hausnarketa bat bera ere egin ez dutenen arrakala. Nork bereizten ditu itxurakeriak baino egiten ez dituzten, eta posturoaren atzean ezkutatzen diren horiek? Pena bada ere, momentu kritikoenetan baino ez gara konturatzen inguruan dauzkagun gizon zein emakume “feministen” benetako pentsaera eta izaerez. Esan dudana bezala, geroz eta kasu gehiago azaleratzen badira, gizarteak ez da horren feministak izango hala? Batzuk behintzat feministaren maskararen atzean ederki ezkutatuta daude.

Hausnarketa falta da arazo nagusia; inork ezin du bere

burua feministatzat hartu sekula ez bada ezer hausnartzen jarri. Hausnarketak dakar egoera hobeto ulertzea, eta ulertze horrek borroka nahi izatea. Kate horretan egin behar da lan, askok lehen eta bigarren urratsa salto egiten dituzte eta hirugarrenean jarri zuzenean, eta hori da arazoa hemen. Horregatik atera behar dugu kalera egun seinalatueta, eta egunerokotasunean ere hortzak gogor erakutsi, ez dezatela borroka feminista lausotu eta asimilatzerik lortu. Erasotzaileei gerra egin behar diegu, eta gure feminista irudiaren itzalean bizitzen ez utzi. Botere ekonomiko eta interes politikoaren eskutik ez dadila erori behintzat. Denok kalera!

Aroa Etxeburua Ugartemendia | **Itxaso Orbegoza** | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Telefono bidezko inkesta, erosketa ohiturei buruz

Aurreko astekarian berri eman genizuen moduan, herri-merkataritza eta ostalaritza bizi-berritzeko plana eguneratzera doa Usurbilgo Udala Siadecorekin elkarlanean. Lehenbizi sektoreak bizi duen egoeraren gaineko diagnosi bat lantze-koak dira. Honen baitan, au-

rrer aurreko elkarriketa bana egingo zaie herriko eragile guztiei –ehun bati– eta 600 herritar inkestatuko dituzte telefonoz erosketa ohiturei buruz.

Inkestan parte hartzera deitzen dute, informazio horren gainean eraikiko baita plana. Adi beraz egunotan etxeko telefonoari.

Adinekoen egoitza berria gauzatzeko urratsa

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Portalmusu eta Komentua eremuetako urbanizazio proiektua hasieraz onartu eta jendaurrean jartzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarak azaroaren 12an.

Azaroaren 14an argitaratu zuen Udalak iragarkia, ordutik

alegazioak aurkezteko 20 eguneko epea izango dute interesdunek.

Birpartzelaketa proiektua

Bestetik, dekretu bidez, eremuotako birpartzelaketa proiektuaren aldaketa behin betiko onartu zuen Udalak hilabete hasieran.

Jai erduei buruzko hausnarketa saioa

Abenduaren 2an 18:00etan Potxoenean. Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatutako bilerara, denetarik festak antolatzen aritzen diren eragileak erakarri nahi

ditu. Herriko festez hausnartzea da helburua. Antropologian, feminismoan, partaidetzako prozesuetan eta ekonomian duten ezagutzan oinarrituta lan egin eta

prozesuotan aditua den Farapi kooperatibak bideratuko du saioa.

Ikuspegi feminista

Usurbilgo Udalak berri eman

duenez, “antolatzen diren ekitaldiek ikuspegi feminista txertatua duten edo ez aztertzea nahi dute, eta erantzuna ezezkoa bada, horri buelta nola eman pentsaraztea”.

Xua gurasoekin etxera ekartzeko martxa, Usurbildik Oriora

Astebete barru, azaroaren 29an euskal presoekin etxeratzea galdegiteko elkarretaratzea deitua du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak, hilerio azken ostiralean bezala, 20:00etan Mikel Laboa plazan. Aurretik, Xua Gurasoekin Etxera herri ekimenak martxa deitu du larunbaterako (azaroak 23) Usurbiletik Oriora, Orion antolatu duten euskal presoekin sakabanaketaren aurkako Dispersioff jaialdiaren bosgarren edizioaren bueltan.

Azaroak 23, larunbata:

“Xua Gurasoekin Etxera” herri ekimenak deitutako mendi martxa Usurbildik Oriora, Bordatzoko errotondatik abiatuta:

- 9:30 Oinez joango direnak.
- 10:30 Korrika joango direnak.
- 11:00 Txirrindaz joango direnak.



Larunbat honetan egingo da martxa. Oinezkoak goizeko 9:30ean aterako dira Bordatzoko errotonda paretik.

renak.

■ 11:30 Usurbildik abiatutako guztien elkartzeko Orioko San Martinen, autopistaren sarrerako errotonda inguruan. Handik Orioko hondartzarantz.

■ 12:00 Usurbildik abiatutako mendi martxari ongi etorria: oriotarrekin bat egitea hondartzara ondoko autopistako zubi azpian. Oriotarrek hartuko

dute lekukoa. Handik Orioko ikastolarantz. Ondoren, ekitaldia ikastola pareko plazan.

■ 14:30 Herri bazkaria Gaztetxean: babarrun jana musikaz girotua. Aukera beganoa ere izango da. Txartelak Gabonen, Aterpen eta K2n salgai. Prezioak: 20 eurotan bazkaria, haurrena 5 eurotan. Bazkaria eta kontzerturako sarrerak 25

eurotan eta kontzerturako soilik 8 eurotan.

■ 20:30 Orioko Gaztetxean: Arrotzak, Kazkezur, Hartz, Rodeo eta Tropical Ice Land. Anartz, Mkol eta Arizonako Billy djak goizaldera arte.

■ Informazio gehiagorako helbide honetara idatzi: xuagurasoekinetxera@gmail.com

Larriki gaixo dauden presoekin eskubideen aldeko ekitaldia

Larriki gaixo dauden 21 euskal presoekin errealtatea plazartzeko aste honetan Buruntzaldean egiten ari diren ekimenen baitan, ekitaldia deitu du Usurbilgo Sare taldeak igandean (azaroak 24), 13:00ean Mikel Laboa plazan osasungintzako langileekin. Egunotan Lasarte-Orian eta Hernanin izango den anbulantzia helduko da Usurbila.

Zumalakarregi ardatz harturik

Zumalakarregi eta bere garaia izan zituzten ardatz azaroaren 9an Nafartarrak kultur taldeak antolatutako jardunaldiek. Lehen karlistadaren testuinguruan Tomas Zumalakarregi jeneralak izandako papera aztertu zuten, betiere, egoera sozioekonomiko eta kulturala ardatz hartuta.

Garaiko foruak mantentzeko nahia eta ondoren geratu zen Kontzertu Ekonomikoaren arteko aldea ere hizpide izan zituzten jardunaldietan parte hartu zuten hizlariak. Historian doktorea den Idoia Arrietak eman zien hasiera jardunaldiei, gaiaren aurkezpen orokorrarekin. Joseba Tapia trikitilariak girotu zuen Sutegiko Aretoa gaia sakontzen hasi aurretik. Zumalakarregiri buruzko ber-



Historian doktorea den Idoia Arrietak eman zien hasiera jardunaldiei, gaiaren aurkezpen orokorrarekin. Joseba Tapia trikitilariak girotu zuen Sutegiko aretoa, gaia sakontzen hasi aurretik.

tsok abestu zituen trikitixa doinuaz lagunduta.

Denetarikoa gonbidatuak izan ziren bai goizeko ekitaldietan, bai arratsaldekoetan ere. Hitzaldiak bete zuten goiza. Gerraren ikuspuntu militarra eta sin-

bolikoa izan zituzten ahotan Fernando Sanchez eta Mikel Soraurenekin. Auzolanean erakitako gizartea, eta euskararen egoeraz aritu ziren, berriaz, Patxi Zabaleta eta Juantxo Mada-riaga.

Mahaingurua

Bazkariaren ondoren, Zumalakarregi museoko zuzendaria, eta Asisko Urmeneta idazle eta margolariak mahai ingurua osatu zuten arratsaldean, Eneko Bidegain Mondragon Unibertsitateko irakaslea moderatzaile zutela. Ikuspuntu anitzak plazaratu zituzten euskal biztanleen karlistenganako atxikimendua ulertarazteko. Bideo bat ere jarri zuten foruen deuseztatzearen gainean, lotura zuzena duena mahai inguruko gaiarekin.

Jardunaldiak ixteko, Idoia Arrietak ondorio orokorrak aurkeztu zituen, aurreko hitzaldietako ideia nagusiak azpimarratuz. Modu horretan esan zieten agur jardunaldiei Sutegira hurbildutako dozena lagunek.

2020ko udal aurrekontuen aurkezpen bira aste honetan amaituko da

Azaroaren 12an abiatu zuen Potxoenean udal gobernu taldeak, 2020ko aurrekontuak aurkezteko auzoz auzo egitekoa den bilera erronda. Geroztik, Kalezar, Zubieta, Txokoalde eta Santuenetik pasa dira. Asteazken honetan (hilak 20) egingo dituzte azken bilerak. Bat Aginagan eta bestea Munalurran.

Auzo nahiz herri guztietan aurkezpen saio bana egin du udal gobernu taldeak. Azaroaren 12an hasi zuten bira Kaxkoko bilera irekiarekin Potxoenean. Helburua ez da soilik urte berriko aurrekontuaren zirriborroa aurkeztea. Herritarren iritzi nahiz proposamenak biltzeko ere abiatu dute biratxoa.

Hilaren 22ko Ogasun

Batzordera eraman nahi dute aurrekontu proposamena

Aurreko urteen ildotik, lehenbizi herritar nahiz eragileei aurkeztu eta haien guztien ekarpenez hornitu nahi ditu udal gobernu taldeak landuak dituen 2020ko aurrekontuak.



Azaroaren 12an hasi zuten bira Potxoenean, Kaxkoko bilera irekiarekin.

AURREKONTU PROPOSAMENA

Udal gobernu taldeak landu duen egitasmoaren arabera, Usurbilek 12,3 milioi euroko aurrekontua izango du 2020an

Eragile nahiz herritarren ekarpen guztiok batuta, aldaketarik ez bada, hilaren 22an Ogasun Batzordeak diktaminatu, eta abenduan ez, aurtun azaroaren 28an egokituko litzatekeen osoko bilkuran hasieraz onartzea bozkatuko du udalbatzak. Gero alegazioetarako 15 egune-

ko tartea zabalduko da, behin betiko onartu aurretik.

Landu dituzten aurrekontuaren arabera, Usurbilek 12,3 milioi euro izango ditu 2020ko egitasmo ezberdinak bideratu eta herri honek dituen erronkei heltzeko.

Azken bilerak

Azaroak 20, asteazkena

■ 19:00 Aginagako aurkezpena ludotekan.

■ 19:00 Munalurrako aurkezpena Eguzki elkartearen.

Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Hotelgintza ikastaroa Beterri-Buruntzako langabetuentzat

Beterri-Buruntzako Udalek hoteletan eta ostatu turistikoetan lan egiteko ikastaro berri bat antolatu dute. Enplegua lortzeko zailtasunak dituzten eskualdeko langabetuei zuzenduta dago, eta hilaren 28an hasiko da. Behin ikastaroa amaituta, hamar langile kontratatuko dituzte. Izen ematea lanbide.eus webgunean egin behar da aste honetan bertan.

Ikastaroa azaroaren 28tik martxoaren 25era bitartean izango da, eta prestakuntza osorik betetzen duten ikasleek Solairuetako Oinarriko Operazioak Ostatueta 1. mailako profesionaltasun ziurtagiria eskuratuko dute. Formazioa amaitzean, apiriletik aurrera, hiru hilabete-tarako lanaldi osoko hamar kontratazio egingo dira sektoreko enpresetan.



Izen ematea lanbide.eus web orrialdean egin behar da.

Elkar eta Gureak Zapategin kokatzetik hurbilago

Egitasmoa bideratzeko Zapategiko arau subsidiarioen eremuko hirigintza ezaugarrien aldaketa puntuala bideratzeko hitzarmena sinatu zuten iazko urrian Michelinek, Gureak, Elkarrek eta Usurbilgo Udalak. Hasieraz onartu zen, gero erreklamazioak aurkezteko epea zabaltzeko eta alegazio bat aurkeztu zuen Gureak-ek. Alegazio hau aintzatzat hartu eta "aldaketa behin behingoz onartzea" udalbatzak aho batez urriaren 31ko osoko bilkuran. Udal talde guztien babesarekin hartutako erabakia

Eusko Jaurlaritzara bideratuko du Udalak eta handik Foru Aldundira behin betiko onespina emateko.

Pikaolako zatia urbanizatzeko konpromiso kreditua

Ugartondon eraikitzen ari diren urbanizazio proiektu berriari lotutako erabakia hartu zuen udalbatzak aho batez urriaren 31ko osoko bilkuran. Udalaren jabetzakoa den Pikaolaren lur eremuko zati bat urbanizatzeko 200.000 euroko diru partidak bideratzea aurreikusia zuen

Udalak 2019ko aurrekontuetan. Baina ez da aski. Lur zati honen urbanizazio lanen esleipena ez atzeratzeko, aurtengo aurrekontuetan beste 220.000 euroko partida gordetzea eta 2020ko ekitaldirako konpromisu kreditua onartu zuen udalbatzak aho batez, urria amaierako osoko bilkuran.

2020ko taxi tarifak

Aurtengoekin alderatuta, %0,8ko igoera aplikatuko zaie 2020koiei. Ez bakarrik Usurbilgoei baita Buruntzaldekoei ere.

■ Tarifa 1 (lan egunetan, 7:00-22:00 artean):

Gutxieneko tarifa: 5,3642.

Egindako km bakoitzeko: 1,1404.

Itxaronaldia, orduko: 21,8840.

■ Tarifa 2 (larunbat, igande eta jai egunetan, abenduaren 24an eta 31n eta lan egunetan 22:00-7:00 artean):

Gutxieneko tarifa: 6,3938.

Egindako km bakoitzeko: 1,8268.

Itxaronaldia, orduko: 34,3927.

Oharra: gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

EAJ-PNVk hiru proposamen luzatu ditu, udal aurrekontu berrietan jasoak izan daitezzen

Datorren urteko udal aurrekontuak lantzen hasi da udal gobernu taldea. Usurbilgo EAJ-PNVk hiru proposamen aurkeztu ditu: Kaxkotik Zubietarako bidegorria Ugaldea atzetik egitea, Etxealdia auzoko irisgarritasuna bermatzea, eta Bizikidetza eta Memoria arloa garatzea. Ekimen hauek abian jartzeko, alderdi jeltzaleak 125.000 euro aurreikusi ditu.



Kaxkotik Zubietarako bidegorria Ugaldea atzetik egitea proposatu du EAJk.

EAJ-PNVko udal taldeak hiru proposamen erregistratu ditu, "Ogasun Batzordean aztertu eta 2020. urteko aurrekontuetan kontuan hartzeko". Josune Urkolaren esanetan, "hain trafiko ugaria duen N-634 errepidearen ondoan oinezko eta txirrindularientzako bidea eraiki ordez, Ugaldea industrialdearen atzetik trazadura seguru eta onuragarri bat bideratzea proposatzen du Usurbilgo EAJ udal taldeak. Trazadura honek Ugaldea industrialdearekiko sarbidea kontuan izateaz gain, herri sarreran aurreikusitako biribilgunearekin lotura konpondu beharko du mendealdeko muturretik eta Lasarte-Txikiertik bizikleta eta oinezko bidearen proiektuarekin lotura kontuan izan beharko du". Egitasmo hau burutzeko "60.000 euroko partida bat jasotzea proposatzen dugu", beharrezko dokumentuen idazketa zein kudeaketaren kostuari

HIRU PROPOSAMEN

"Kaxkotik Zubietarako bidegorria Ugaldea atzetik egitea, Etxealdia auzoko irisgarritasuna bermatzea eta Bizikidetza zein Memoria arloa garatzea. Ekimen hauek denak abian jartzeko, alderdi jeltzaleak 125.000 euro aurreikusi ditu"

aurre egiteko. "Pasa den legegaldian Udalak eskatutako Lasarte-Urbil-Troia-Usurbil bidegorria N-634 errepidearen paraleloan egitea baino egokiagoa dela iruditzen zaigu".

Etxealdiako irisgarritasuna hobetzeko neurriak

Etxealdia auzoa kaxkotik gertu dagoen eremu bat izanik ere, gaur egun N-634 eta Kale Nagusiaren artean geratu da uhar-

te baten gisa. Kokagunea maldatsua da "eta oinezkoentzako ibilbideen eskaintza bakarrak eskailerak edo San Esteban eta Bizkarre kaleko aldapak izanik, irisgarritasun arazo handia dago auzoan. Bestalde, Etxealdia eta Bizkarre artean, egun Kale Nagusia den eremuaren garapen faltak Etxealdia auzoaren antolamenduaren hobekuntza eta irisgarritasuna galarazten ditu". Horregatik, Usurbilgo EAJren ustez, "ezin bestekoa deritzogu Etxealdia eta Bizkarre arteko eremuaren garapena bultzatzea, eremu guztiaren berrantolaketa lortzeko". Era honetan, Etxealdia auzoko irisgarritasuna hobetuko litzateke "eta kaxkoarekiko isolamendu arazoari aurre egingo litzaioke". Hau guztia aztertzeke, 2020ko aurrekontuetan 50.000 euroko partida bat jasotzea eskatu du Usurbilgo EAJ-PNVk.

Bizikidetzaren aldeko ekimenak

Bizikidetza eta Memoria sustatzeko eskaera ez da berria. 2020ko udal aurrekontuei begira, alderdi jeltzaleak proposamen zehatz bat egin du. Kultura Politiko Demokratikoa, Bizikidetza eta Giza Eskubideen arloan ekimenak garatzeko 15.000 euroko diru partida bideratzea proposatu du Ogasun Batzordean. "Helburua da bakea betiko eta modu atzerazinean finkatzea, bizikidetzara bideratzen laguntzea eta Usurbilgo kultura demokratikoan sakontzea, herritarren artean giza eskubideen ezagutza sustatuz". Josune Urkolaren esanetan, "horretarako udal ordezkari zein herri mailako lan prozesuak bultzatu behar dira, iraganean gertatutakoaren inguruan hausnarketa egin eta etorkizuneko kultura demokratikoan sakonduz gure herriko bizikidetzan eragiteko".

Esker ona

Azaroaren 10eko hauteskundeetan bozka Eusko Alderdi Jeltzaleari eman dieten usurbildar guztiei bere esker ona adierazi nahi die Usurbilgo EAJk. "Auzoz auzo, herriz herri eta lurraldez lurralde, milaka eta milaka euskaldunek gudan jarritako konfiantzari esker indarberrituta atera gara EAJ-PNVk Euskadiren alde lanean jarraitzeko".

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

“Zapalkuntzei aurre egiteko tresnak agerian jarri nahi ditugu”

Usurbilgo Kafe Tertuliako kideek azaroaren 25erako egitarau berezia prestatu dute. Emakumeek jasaten duten zapalkuntzen aurrean autodefentsa feministaren aldeko apustua egin dute. Mahai ingurua eta kontzentrazioa egingo dira arratsaldean. NOAUA!-rekin izan dira Malen Azpiazu eta Nahia Arbizu Kafe Tertuliako kideak, berrikuntzen berri emateko.

NOAUA! Lehen aldiz azaroaren 25erako egitarau bat prestatu duzue Kafe Tertuliako kideek.

Malen Azpiazu: Kafe Tertuliaren eskutik Azaroaren 25eko egitaraua prestatzen ibili gara azken boladan. Emakumeok jasaten dugun zapalkuntza ororen aurkako eguna da datorren astelehena, eta egun horretan, zapalkuntzei aurre egiteko tresnak agerian jarri nahi ditugu. Azaroaren 25a jende askok ez du ezagutzen. Guk berriz, ikusgarritasuna eman nahi dugu.

Nahia Arbizu: Egun horrekin



“Autodefentsa feminista esparru askotara zabaltu nahi dugu, denok aukera berak izan ditzagun”. Halaxe adierazi digute Kafe Tertuliako kideek.

AZAROAREN 25EAN

“Gizarteari transmititu nahi diogu zer inpotentzia sentitzen dugun eta zein desados gauden zapalkuntza ororekin”

gizarteari transmititu nahi diogu zer inpotentzia sentitzen

dugun eta zein desados gauden zapalkuntza ororekin. Ez gaude biktimak izateko prest. Haserre agertu nahi dugu, eta herriari erakutsi zertarako gai garen. Erasotzaileei deseroso sentiaraztea ere garrantzitsutzat jotzen dugu, bai egun horretan, bai gainontzeko guttietan ere.

Zer prestatu duzue egun horretarako?

M.A.: Autodefentsa feminista esparru askotara zabaltu nahi dugu, denok aukera berak izan ditzagun. Usurbilgo gazte batzuk Lizarran ospatu ziren jardunaldi feministetan izan ginen, eta bertan autodefentsan zentratu zuten gaia. Lehenago Euskal Herriko gazteekin lanketa bat egin zuten, eta bertan ikusi zuten autodefentsari buruzko lanketa bat egin nahi zutela, eta hori ere beharrezkoa dela. Gu ere gai horretan zentratuko gara, indarkeriaren aurkako eguna izanda, autodefentsa delako horri aurre egiteko daukagun tresna indartsuenetako bat.

N.A.: Askok pentsatzen dute erasoak momentu eta leku jakinetan gertatzen direla, testuinguru jakin batzuen baitan. Guk erakutsi nahi dugu erasoak egunero eta denok jasaten ditugula, eta horretaz kontziente izaten hasi behar dugula. Behin eraso horiek identifikatuta sortzen dira aurre egiteko tresnak.

Azaroaren 25ean arratsaldeko 19:00etan, elkarretaratzea Mikel Laboa plazan

NOAUA! Nolako ekitaldiak prestatu dituzue?

Nahia Arbizu: Ez dugu Martxoaren 8an egin zen dimentsioko ekimenik prestatu. Arratsaldean zentratu dugu kontua, lan eguna izanik, ahalik eta jende gehien biltzeko modu bakarra da. Lehenengo kontzientziazio lan hori egiteko mahai inguru bat egingo dugu autodefentsari buruz, eta gero kontzentrazioa modu bisualagoan erakusteko herriari azaldu nahi duguna.

Malen Azpiazu: Bostetan mahai ingurua egingo dugu, printzipioz frontoian. Eta gero, zazpietan kontzentrazioa Mikel Laboa plazan. Lehenago moskeo kanpaina bat ere egingo dugu.

Zein helburu izango dituzte ekimenek?

M.A.: Kontzientziazio maila igo nahi dugu Usurbilen. Autodefentsa feminista ez da esparru fisikora bakarrik mugatzen, esparru psikologikoan

ere eragin nabarmena du eta egunerokotasunean jasaten ditugun erasoei aurre egiteko tresna bat da. Lema nagusi bat atera zen Lizarrako jardunaldietan, eta horixe erabiliko dugu: “Zuen biolentziari guk autodefentsa feminista”.

N.A.: Denetariko jendea hurbiltzea da gure helburua. Kafe Tertuliak antolatu du, baina horrek ez du esan nahi gazteei bideratutako ekintza denik. Guk bideratuko dugu mahai ingurua, baina esperientzia

eta emakume desberdinen iritzia bildu nahi ditugu, denok jasaten dugulako zapalkuntza. Elkar elikatzea da helburua.

“Oso talde irekia gara”

Kafe Tertulia nahiko talde berria da, baina gauza asko antolatzen dituzue.


M.A.: Neska gazteon Usurbilgo talde feminista da Kafe Tertulia. Oso talde irekia gara, edozein neskak gai konkretu baten gainean interesa badu anima dadila.

OINORDETZEI BURUZKO HITZALDIA



Caserna titulada Goyopaga-góicwa

La caserna titulada Goyopaga-góicwa radica en



Baserrietan, ondasunetan, gaur egun oinordetzarako zein aukera dauden aztertuko, eta historian zehar auzi honek izan duen bilakaera azaltzea litzateke hitzaldiaren helburua. 30 minutu inguruko azalpenen ondoren, bertaratutakoek galderei erantzuko die Andres Urrutia Badiola jaunak.

Andres Urrutia Badiola, Bilboko notarioa da. Aurretik Ondarroako notarioa ere izan da. Deustuko Unibertsitateko irakaslea da, Zuzenbide Zibila eta Euskal Foru Zuzenbide Zibilean.

Euskaltzaindiako lehendakaria ere bada.

Data: Abenduak 2, arratsaldeko 18:00etan.

Tokia: Potxoenea Kultur Etxea

Hizlaria: Andres Urrutia Badiola





Iazko Euskaraldiak Usurbilen izan zuen eragina hizpide izan zuen Uxo Anduagak. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.



Ixabel Agirresaroberen saioarekin abiatu zen Euskaraldiaren inguruko solasaldia. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.



Orbeldi Dantza Taldekoek "Orbeldi jauzia" ikuskizuna eskaini zuten azaroaren 8an Sutegin. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.



Orbeldikoen dantzaldiak jende ugari erakarri zuen. Etenak eten, emanaldi ikusgarria eskaini zuten. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.



Ane Azkonobietak eta Mikel Alkortak girotu zuten bertso bazkariaren aurretik egin zen kalejira. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.



Bota Punttubarekin batera antolaturiko bertso-bazkaria Aitzaga elkartearen egin zen. Txartel denak agortu ziren. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.



Maialen Lujanbiok eta Igor Elortzak umoretsu hasi eta umoretsu amaitu zuten bertso saioa. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.



Izaki Gardenak taldearekin txiki geratu zen Sutegin. Sarrera guztiak saldu ziren. Talde arabarrak arrakasta handia duen seinale. Argazkia: Ibai Arrieta.



Josune Arakistainen hitzaldian, Huntzako abesti bat entzuteko aukera izan zuten Sutegira bertaratu zirenek. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.



Ugaitz Agirrek "Non dago Amaia?" ikuskizun poetikoa aurkeztu zuen azaroaren 15ean Sutegin. Argazkia: Ibai Arrieta.



Mikel Martinez aktoreak "Tabernaria" izeneko ikuskizuna eskaini zuen aurreko larunbatean Sutegin. Argazkia: Ibai Arrieta.



"Agur Etxebeste!" filma aurkeztera etorri ziren Asier Altuna zuzendaria eta Ramon Agirre aktorea. Argazkia: Ibai Arrieta.

Orbeldi Dantza Taldeak Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saioan hartuko du parte

Pailazoak urtero etortzen dira Usurbilgo kiroldegira. Ondo sus-traituta dagoen ohitura da. Aurtengo ordea, bada berri-tasunik. NOAUA!k hartu du bere gain Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunaren antolaketa.

Argiaren Lagunak taldekoen lekukoa hartu dugu eta NOAUA!tik bideratzen ari gara pailazoen emanaldia. Abenduaren 1ean arituko dira, igandearekin, eguerdiko 11:30ean Oiardo kiroldegian.

Sarrerak martxa onean ari dira saltzen. 7 eurotan eskura daitezke Bordatxon, Lizardin eta NOAUA!n. Egunean bertan



Abenduaren 1ean, eguerdiko 11:30ean arituko dira Oiardo kiroldegian.

ABENDUAREN 1EAN

Sarrerak aldeztu aurretik eskura daitezke Bordatxon, Lizardin eta NOAUA!n, 7 eurotan

aldiz, 8 eurotan salduko dira Oiardoko txarteldegian.

Orbeldikoak dantzan

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Bizi dantza izeneko ikuskizuna eskainiko dute abenduaren 1ean.

Biran zehar, tokian tokiko dantza taldeak gonbidatuko dituzte oholtza gainera. Usurbilen eskainiko duten saioan Or-

beldi Dantza Taldeko kideek hartuko dute parte.

Larunbat honetan, ipuin musikatuak Aginagako ludotekan

Apika taldearen "Inguru Minguru" ipuin musikatuaren saioa antolatu du Antxomolantxa elkarteak larunbat honetarako, 17:00etan, Aginagako ludotekan. "Iranen eta Afrikan kokatutako istorioen bidez biotopoa nola sortzen eta zaintzen den ikusiko dugu. Ingurugiro eta birziklapenari buruz arituko gara. Musika, ipuinak, kanta eta giro ezinhobea familian ondo pasatzeko".

Inaxio Usarralde: “Finalaurrekoetan sorpresaren bat egongo balitz, ez nintzateke harrituko”

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa azken txanpan sartu da. Ez da porrot nabarmenik izan eta faboritoek faborito izaten jarraitzen dute. “Kontuz hala ere, nik ez nuke aposturik egingo”, ohartarazi gaitu Inaxio Usarralde. Txapelketak orain arte eman duenaz eta gai jartzaileen lanaz galdezka hurbildu gara Usarralderengana.

NOAUA! Gazte belaualdi bat nabarmendu da aurtengo txapelketan. Bertsolarien harrobia emankorra dela dirudi, ezta?

Inaxio Usarralde. Egia da, gazte mordoa dator eta maila onean. Gazteak badakizu zer daukan? Galtzeko gutxi, freskura... Eta aizu, parean jotzen badu, ba aurrera! Hor duzu Eñaut Martikorenaren kasua.

Eta gazte horietako asko emakumezkoak dira. Oiertzungo finalaurrekoan hain juxtu, hiru mutil eta hiru neska arituko dira kantari. Gauzak aldatzen ari diren seinale al da? Finalaurrekoak nola geratu diren zozketak erabaki du. Ez dago beste misteriorik. Hala gertatu da. Emakumeen pre-



Ezkerretara, Asier Azpiroz. Lehen planoan, Inaxio Usarralde. Argazkia Andoaingo final-laurdenari dagokio. Gauzak zer diren, igande honetako finalaurrekoan ere bat egingo dute biek Oiertzunen.

INAXIO USARRALDE

“Jendea urduri ibili da sailkapen fasean baina hori txapelketa guztietako kontua izan ohi da”

sentziari dagokionez, errealtate ezkuta ezin bat da. Maila onean ari dira, gainera. Txapelketa honetan emakumeek soilik osatutako saiorik ez da izan baina batzuetan gehiago izan dira. Errealitate hori normalizat hartu behar da.

Orain gutxi arte, jaialdietan eta bertso saio klasikoan egiturari, laupabost gizonezko aritzen ziren. Eta emakumezko kuota bat betetzeko, bat edo bi emakume gonbidatzen zituz-

ten. Hori aldatzen ari da. Onerako, noski.

Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi eta Agin Laburu. Txapelketa hasi aurretik, horiek ziren faborito nagusiak. Finalaurrekoen garaia iritsi da eta faborito izaten jarraitzen dute. Aurreikuspenak bete egin direla esan daiteke, ezta?

Bai. Txapelketetan, normalean, probabilitateak bete egiten dira. Kontuz hala ere, nik ez nuke aposturik egingo. Kirolean gertatzen den moduan, egun seinatutako tokatzen zaiuna egin behar duzu. Eta ez baduzu egiten, kanpoan gelditzeko arriskua duzu. Txapelketan ere berdin gertatzen da. Finalaurrekoetan sorpresaren

bat egongo balitz, ez nintzateke harrituko.

Hortaz, finaleko taldea duela lau urtekoaren oso antzekoa izango al da?

Orain lau urteko finaleko batzuk ez dute txapelketan parte hartu. Horien tokiak bete beharko dira. Nola? Ikusiko dugu. Esan bezala, sorpresari ez nioke aterik itxiko.

Txapelketak gertutik jarraitu ohi dituzu. Ezustekorik hartu al duzu honakoan?

Ez. Oso normal joan da txapelketa. Ezusteko gutxi egon dela esango nuke. Jendea urduri ibili da baina hori txapelketa guztietako kontua izan ohi da. Eskarmentu pixka bat duena adibidez, hura beldurrez aritzen da sailkapen fasean. Zer irabaz dezakeen baino, zer galdu dezakeen pentsatuz ari da. Zantzu horiek oso ohikoak dira txapelketa guztietan.

Eñaut Martikorena ez al da ezusteko bat izan zuretzat?

Eñautena ez da sorpresa izan. Gazte mailan destakatu izan du eta gazte mailan ondo aritu den jendea espero zen bezala erantzuten ari da.

“Fasearen garrantziak ez du gure lana baldintzatzen”

NOAUA! Finalaurrekoetan da txapelketa. Gero eta gehiago dago jokoan. Fase erabakigarrietan, gai jartzaileen lana modu berean planteatzen al da?

Inaxio Usarralde. Fasearen garrantziak ez du gure lana baldintzatzen. Gure lana baldintzatzen duena beste zerbait da. 12 bat saio egin dira udazkenean (udaberrian ere beste horrenbeste egingo

ziren). Gai batzuk oso ezaugarriak zaizkigu honez gero eta berria edo originala izango den zerbaiten bila aritzen gara. Horrek ematen dizkigu buruhausterik handienak.

Jende batek akaso, gaien inguruko iritziak emango ditu finalaurrekoak bakarrik entzunda. Nola jarri leike gai hori? Ez da konturatzen aurretik saio gehiago egin direla eta hainbat kontu dagoeneko

planteatu ditugula.

Entzule bezala joaten zaren saioetan, zuk ere gai jartzaileen lanean erreparatzen al duzu?

Gauza bat da gaia jartzea; guk aurretik bileran egiten duguna. Eta beste gauza bat da gaia plazan ematea edo aurkeztea. Aurkezteko une hori ere erreparatzen diot, noski. Beti ere, kritika konstruktiboa

egin nahian. Niri egin didate eta eskertu izan dut eta nik ere besteei ere egiten saiatzen naiz, unea eta modua zainduduz. Azken batean, gaia transmititzeko garaian, gai jartzaile figura klabea da.

Animo Oiertzungo finalaurrekorako.

Eta animo Asierri. Ea gure bikote harremanak jarraitzen duen!

Asier Azpiroz: “Opari bezala hartu dut, gozatu egin nahiko nuke orain”

NOAUA! Azaroaren 24an Oiartzungo finalaurrekoan arituko zara. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan hain urruti iritsi zaren lehen aldia da, ezta?

Asier Azpiroz. Bai, hala da. Lehen txapelketan sailkapen fasea pasa nuen baina final zortzirenetan kalera joan nintzen. Duela lau urte final-laurdenetara sailkatu nintzen eta oraingoan finalaurrekoetara iritsi gara.

Puntuazioari dagokionez, behetik gora egin duzu. Irailean Ordizian jokaturako final-zortzirena nola oroitzen duzu orain?

Bertso eskolan juntatzen ginean nahikoa gustura aritzen nintzen. Ordiziako saioan ordea ez nintzen eroso sentitu. Nire buruaren kontrolik gabe aritu nintzen eta ez nintzen gustura egon. Aurrera egitea lortu banuen ere, nire buruari agindu nion beste modu batean aritu beharra zegoela. Nire buruarekin haserre bukatu nuelako Ordizian. Bertso mailarekin eta oholta gainean egoteko moduarekin. Andoaingo final-laurdenari begira hori hobetzen saiatu nintzen.

Bitxia da. Andoaingo saioan bosgarren izan zinen baina puntuazioari dagokionez Ordiziakoan baino puntu gehiago eskuratu zenituen.

Andoaingo final-laurdenean dezente gusturago aritu nintzen.



Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalaurrekoan abestuko du lehen aldiz. Azaroaren 24an, Oiartzungo kiroldegian.

ASIER AZPIROZ

“Jende asko egongo da Oiartzungo saioan eta, gozatzeaz gain, bertsotan ere zentratu beharra dut. Oreka hori bilatu behar dut”

tzen, bai. Eta batez ere, Ordizian baino lasaiago sentitu nintzen. Gaiak hobeto aditu nituen; ondoko bertsolariak kantatzen zuena entzuten nuen eta hari erantzuten saiatzen nintzen... Normalitate baten barruan aritu nintzen.

Eta finalaurrekoetan sartzea

lortu zenuen. Espero al zenuen?

Zer hobetua badago baina zaila da zuk nahi duzun bezala aritzea. Andoaingo saioa amaitu zenean ez nuen esperantza handirik pasatzeko. Pozik nengoen erakutsi nuen bertso mailarekin, baina beste bertsolariak ere ondo ikusi nituen. Laugarrenarekin berdinduta geratu nintzen eta hirugarren postutik oso gertu. Biharamunekoa saioan ikusi zen aurrera egiteko aukerak izango genituela.

Beñat Gaztelumendi, Iñigo Mantzizidor, Ane Labaka, Amaia Iturriotz eta Alaia Martinekin batera arituko zara Oiartzun-

go finalaurrekoan. Saio polita izateko osagai ugari ditu.

Oso saio polita geratu da, bai. Genero aldetik ere orekatua. Bertso estiloz ere, ederra. Andoainen banuen beldur hori, denak mutilak ginen eta oso ingurukoak. Ez ote zen monotono samar geldituko... Gero ez zen horrela suertatu.

Oiartzungoak itxura polita du. Ane txikitatik ezagutzen dut eta ekitaldi askotan egin dugu bat. Beñatekin zer esanik ez. Amaia Iturriotz gazteagoa da baina elkarrekin aritu izan gara eta ilusio handia egiten dit.

Finalaurrekoetara pasatzeak zer suposatzen du zuretzat?

Opari bezala hartu dut. Orain gozatu egin nahiko nuke. Horrelako aukerak ez ditudalako askotan izango. Baina aldi berean, gozatu behar horrekin, kezka bat ere badut. Maila eman beharra dagoelako. Jende asko egongo da eta gozatzeaz gain, bertsotan ere zentratu beharra dut. Oreka hori bilatu behar dut. Gozatu bai, baina emaitzaz haratago, itxura eman beharra dago. Ea oreka hori topatzen dudan.

Bide batez, sari modukoa ere lortu duzu: Euskal Herriko Txapelketarako sarbidea.

18 arituko gara finalaurrekoetan eta 17k eskuratuko dute sarbidea. Ea ba.

Igande honetan Oiartzungo kiroldegian abestuko du

- Azaroak 24 igandea.
- Arratsaldeko 17:00etan.
- Oiartzungo Elorsoro kiroldegian.
- Babeslea: Oiartzungo Udala.
- Bertsolariak: Alaia Martin Etxebeste, Amaia Iturriotz

- Etzaniz, Ane Labaka Mayoz,
- Asier Azpiroz Iztueta, Beñat Gaztelumendi Arandia, Iñigo Mantzizidor Larrañaga.
- Aurkezlea: Inaxio Usarralde Arantzadi.
- Egin beharreko lanak:

- Binaka, gaia emanda, hamarrekotik hiruna bertso.
- Binaka, gaia emanda, zortziko txikian hiruna bertso.
- Binaka, gaia emanda, 6 puntuko motzean hiruna

- bertso.
- Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortziko bertso osatu arte.
- Kartzela: bakarka, gaia emanda, nahi den doinu eta neurrian, hiruna bertso.

Gazte Eguna Aztarrika piztera dator

Ikasturte hasiera biziki mugitua iragarri du Aztarrika Usurbilgo gazte asanbladak, astebete barrurako antolatu duen Gazte Egunarekin. Edizio hau zikloan bilakatu dute. Ekitaldien egun nagusia azaroaren 30a izango den arren, aurrez hausnarketara nahiz proposamen bilketara bideraturiko bi saio antolatu dituzte Potxoenean.

Herri eragile gehiagorekin elkarlana sustatu nahi izan dute aurtengoan eta hortik sortu da lehen hitzordua; herriko jaietako Txosna Batzordeak festetako aurrera begirako erronkez jardungo du hilaren 28an Potxoenean. “Aurkezpen moduko bilera izango da, jai ereduaren inguruko lanketa egin eta hausnartzeko”, Aztarrikak iragarri duenez.

Bigarren saioa, gazte asanbladari buruz hausnartzeko izango da, bereziki gazte belaunaldi berriari zuzendua. Gazte Eguna ezin une aproposagoa iruditzen zaie “saretze bat emateko”. Gazte asanbladako kide izateari buruz ariko dira. “Jaietan gazte berri asko ikusi ditugu. Gazte berri dezentte izan ditzakegula espero dugunez, bat baino gehiago herri eragile baten parte izango dira lehen aldiz. Gazte asanbladaren ibili garenok gure esperientzia partekatuko dugu. Beraiek zer espero eta nahi duten horretan oinarrituko dugu saioa”, gazte asanbladako esanetan. Gonbita beraz, belaunaldi berriari. “Gogotsu dauden gazte berriak anima daitezela etortzera. Gazte berrien kezkak entzun nahi ditugu”. Hausnarketa saio horretan bildutako ekarpenak aintzakotzat hartuta, hurrengo hilabeteetan landu ditzaketen gaien urteko plangintza osatzera igaroko dira Gazte Egunerako iragarri duten lehen hitzorduan.



Azaroaren 30a izango den arren, aurrez hausnarketara nahiz proposamen bilketara bideraturiko bi saio antolatu dituzte Potxoenean.

AZTARRIKA

“Gazteok harremantzeko eta ekimenak antolatzeko espazio beharra badugu”

Espazio eroso bat sortzea helburu

Kide berriak erakarri eta gazte asanblada bera egonkortu nahi dute. Harremantzeko, eta elkarlanean gazteen kezketatik abiatuta kezka edo arazo hauek lantzeko espazio ireki eta eroso bat sortzea herri eragile desberdinekin saretuz, gogorarazten dutenez, borrokan jarraitzeko, “gazteok harremantzeko eta ekimenak antolatzeko espazio beharra badugu eta herrian”. Espazioon faltan, lokaletarako joera nagusitzen da eta horrek “ghe-ttoak sortzea dakar, herri girotik isolatzea”. Hori ekidin nahi dute.

Beste eragile batzuekin saretze lana egite aldera Gazte Egunez iragarriak dauden Euskarenen Eguneko ekitaldietako bat ere haien egitarauan txertatu du gazte asanbladak; herriko artixten emanaldia. Aurrez Dj ibiltari batekin kalejira abiatuko dute “gazte guztiok, denok batera” Askatasuna plazatik. Bidean zehar, frontoi ondoan egongo den Euskaraldiari lotutako euskaltzaleen sarean bizipen eta

desioak txertatu asmo dituzte. Eta abiapuntu izango duten plaza berean, herriko sortzailak eskainiko duten ikuskizuna hasiko den unean amaituko dute kalejira.

Eraso sexisten aurkako ekimenak

Herriko artixten emanaldiaren ondotik parranda giroan murgilduko dira Askatasunan bertan antolatu duten afarian eta afalosteko kontzertuen eskutik. Parranda girorako, jaietan egin bezala, talde feministak eraso sexisten aurkako bi ekimen jarriko ditu martxan; batetik besoko morea eramango dute 10 bat lagunek. Erasorik gertatuko balitz, besoko morea

duten lagunongana gerturatu ahalko da, eta erasoaren markagailua jarriko dute. Bi astean behin Potxoenean biltzen diren kafe tertuliako kideek landu dituzte ekimenok gazte asanbladarekin, Gazte Egunera begira. Taldeak herri mailan duen indarra nabarmentzen du gazte asanbladak.

Kamisetak soinean

Iaz plazaratu eta aurreko berriz salgai izan dituzten Aztarrikaren kamisetak soinean jantzita festa giroan murgiltzera deitzen du gazte asanbladak. “Ez izan lotsarik, etorri Gazte Eguneko ekimenetara”, luzatu dute gonbita Aztarrikakoek.

Azaroaren 30ean, Gazte Eguna

Azaroak 28, osteguna

■ 22:00 Txosna Batzordearen eskutik, “Erronka berriak herriko jaietan”, solasaldia.

Azaroak 29, ostirala

■ 21:30 “Aztarrikarrak: zer da gazte asanbladako kide izateak?”, solasaldia Potxoenean.

Azaroak 30, larunbata

■ 11:00 “Usurbilgo gazteria aztarrika! Urteko asmoak finkatzen”, Potxoenean.

■ 18:00 Dj ibiltaria, Askata-

suna plazatik abiatuta.

■ 19:30 “Usurbildarrak daukate”, herriko artixten emanaldia Askatasuna plazan.

■ 21:00 Gazte afaria: txartelak Aitzagan salgai.

■ 23:30 Kontzertuak Askatasuna plazan: Inorkiñak, Eguerra ta Kitto, Gora Etorri eta Dj. Baxur.

Informazio gehiago:

Instagramen; @aztarrika

Antolatzailea: Aztarrika.

Gorazarre azaroaren 11ri

Kantuan eta dantzan egin zioten harrera Udarregi Ikastolako HH eta LH-ko ikasleek San Martin Egunari, Jaione Eskudero musika irakaslearen gidaritzapean. “Azaroak 11” abestu zuten txikienek, txirulari helduenen laguntzaz. Dantzan amaitu zuten ospakizuna. Laster irtengo dira berriz plazara; abenduaren 3ko Euskararen Egunean edota neguko oporren atarian, abenduaren 20an.



“Azaroak 11” abestu zuten txikienek, txirulari helduen laguntzaz.

Udarregiren lan eskaintza

DBHn zientziako gaiak irakasleko langilea behar du Udarregi Ikastolak. NOAUA!ra igorri duten lan eskaintzaren iragarkiak dioenez, fisika-kimika eta matematika irakasle baten bila dabilta. Zientzian graduondoa (Master Titulu Ofiziala eta Lizentziatura), DBHko Hezkuntza-Gaitasuneko Masterra eta EGA (Euskara Gaitasun Agiria)

LAN DEIALDIA

Fisika-kimika eta matematika irakasle baten bila dabilta Udarregi ikastolan. Abenduan hasiko litzateke lanean

edo baliokidea izatea ezinbestekoa dute deialdiarekiko interesa izan dezaketene.

Azaroaren 24a baino lehen eman behar da izena

Hautagaiek duten eskarmen-tua ere baloratuko da. Lan deialdian azaroaren 24a baino lehen eman beharko da izena. Kurrikuluma usurbil@ikastola.eus helbidera helarazi.

Argibideetarako

Elkarrizketarako eta argibide gehiago jasotzeko deitu 943 361 216 telefono zenbakira.

Trikiti doinu alaiak, negu giroa uxatzeko



Aurreko larunbatean, kaxkoan barrena ibili ziren kalejiran. Andatzpe elkartearen bazkaldu zuten.



Negu giro betean bizi genuen asteburuan giro hotz eta bustiaz ahaztarazi zigun doinuak plazaratu zituzten Usurbilen antolatu zen trikitixa zaletuen topaketako partaideek. Usurbil nahiz Aginagako trikitilari eta

panderojoleak ikusi genituen, giro goibela alaitzen. Baita Zarautz edota Zumaia aldetik etorritakoak ere. Trikitixarekiko duten zaletasunak bildu zituen.

Elkartu, elkar ezagutu, eta

garrantzitsuena, kuttuna duten musika instrumentuaz gozatzaren aritu ziren azaroaren 16an Kaxkoan barrena egin zuten kalejiran lehenik, eta gero Andatzpe elkartearen egindako bazkariaren bueltan.

Jakoba Errekondorekin egunpasa Nafarroa Behean

Azaroak 23, larunbata

■ 10:30 Ibilbide gidatua Jakoba Errekondorekin, Duzunari-tzeko (Nafarroa Behea) Idiertia etxaldekiko abiatuta.

■ 12:00 Idiertia Etxaldera bisi-

ta Jon Harlouchetekin.

■ 14:00 Idiertian bazkaria.

■ 16:00 Jakoba Errekondoren “111 hostoz eta orriz jantzi” liburua aurkezpena. Emanaldi berezia: Sustrai Colina, Itxaro

Borda, Ibon RG, Pantxika Maitia.

■ Prezioa: 20 euro.

■ Izen ematea: 616 79 62 84.

argiak100urte@argia.eus

■ Deitzaileak: EHKOLEktiboa, Bi-harko Lurraren Elkartea, Argia.

Larunbat honetan Palestinaren

aldeko eguna

Azaroak 23, larunbata

■ 09:00 Mural margoketa.

■ 11:00 Mahai ingurua Sutegiko auditorioan: “Palestina eta erresistentzia aurrera begira”. Hizlariak: Fayed Badawi (Europako FLPko ordezkaria), Aritz Saidi (sektore energetikoa; nazioarteko erlazioetan aditua), Gabriel Ezkurdia (politologoa eta nazioarteko gaien analista).

■ 14:00 Bazkari palestinarra Aitzaga Elkartearen. Txartelak Aitzagan 20 eurotan salgai. Entsalada: taboulé, endibia txalupatxoak.

Sarrerakoak: chorba (gari zopa), falafel, berenjena krema, humus eta burek.

Bigarrenkoak: kefta (haragi pikatu pintxoak), aza hosto beteak, behi tadjin-a.

Azkenburukoa: namoura (semola eta ezti opila), ur krema.

Antolatzailea: Tadamun.

Harria Hitz, Irati Otamendi arkitektoarekin

Azaroak 23, larunbata

■ 10:00 Usurbilgo frontoian elkartu.

■ 10:05 Harria hitz bisita gidatua herrigunean. Gidaria: Irati Otamendi ikerlari eta arkitektoa.

■ 11:00 Amaiera.

Erreserbak: harriahitz.eus

688 818 017

info@kultour.pro

Inauteri Festarako gaia

Jostaleku erraldoian bilakatu genuen iaz Usurbil. Eta aurten? Otsailaren 22an ospatuko dugun Inauteri Festarako zertaz mozorro-tu nahi zenuke? Proposatuzure gaia elkarte@noaua.eus helbidera idatzita.

Erronka beteta

Erraustegiaren kutsagaien inguruko kontrol independentea abian da, auzolanean bildu den laguntzari esker. Gutxienez biltzea ezinbestekoa zen kopuruaren -13.000 euro- bikoitza (26.384 euro azaroaren 9ra arte) jaso du Erraustetaren Aurkako Mugimenduak asteotan antolatutako duen 'crowdfunding' kanpainak.

Jasotako laguntza oilategietan egindako ikerlana eta azken asteotan zabaldu den ikerlan lerro bat finantzatzera bideratuko dute. Oilategietakoarekin batera, Usurbil, Lasarte-Oria eta Andoaingo 39 emakumeek ama-esnea eman dute ikertua izateko. "Lan horiek osatzen duten fasean sortutako gastuak ordaintzeko erabiliko da bildutako dirua eta geratzen dena hurrengo faseetarako gordeko da", iragarri du Erraustetaren Aurkako Mugimenduak. Erraustegia piztuko balitz, hurrengo urteetan kontrolak egin eta hilabeteotan bildutako datuekin -lehen kon-



Jasotako babesak indar berriak eman dizkie lanean segitzeko.

26.384 EURO BATU DITUZTE

"Gure esker ona zuei, bilketan parte hartu duzuen herritarroi eta laguntza eman duten erakundeei"

trolarekin- alderatuko dituzte.

Pozik eta esker oneko agertu dira ekimenaren sustatzaileak. "Gure esker ona zuei, zuen diru-laguntzarekin bilketan parte hartu duzuen herritarroi, eta baita beren laguntza eman duten udal, alderdi, sindikatu eta

beste elkarteei". Guztion bultzadak, "indar berriak ematen dizkigu" lanean segitzeko. Datozen ekimenetan parte hartzeko deia egin du Erraustetaren Aurkako Mugimenduak.

"Erraustegia geldirik dago eta oraindik ez da hasi lanean"

Ikusiko zenuten kea dariola Zubietako erraustetaren zero guneko tximinia bati. Tratamendu Mekaniko Biologikoaren plantako tximinia dela

argitu nahi du Zubietako Lan-tzenek. "Erraustegia geldirik dago eta oraindik ez da hasi lanean", ohartarazi dute aipatu elkartetik.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurreikuspenak kontuan izanda, dagoeneko probaldi fasean behar zuen Zubietako erraustegiak eta abendurako martxan. Baina transformagailu nagusian izandako matxurak erraustegia piztea hilabete batzuk luzatu dezake.

Bitarte horretarako, Gipuzkoako Hondakinen Kontsoltzioak herrialde honetako hondakinak tratatzeko Bizkaia-ekin duen hitzarmena luzatzea erabaki zuen urrian aipatu erakundeko asanbladak. Modu honetan, Zubietako azpiegiturek probaldi fasea igaro eta martxan jarri arte, Gipuzkoak hondakinen ehuneko ehuna tratatua izango duela bermatu nahi dute. Asanblada berak gainera, Zubietako gaineko azpiegituren bigarren faseko lanak hiru hilabetez luzatzea onetsi zuen.

"Klima ez da negoziua"



Urrian, Naturklima jardunaldietan elkarretaratzea egin zuten.

Foru Aldundiaren Naturklima fundazioak urria amaieran antolaturiko klima aldaketaren inguruko jardunaldien atarian mobilizatu zen Erraustetaren Aurkako Mugimendua "klima ez da negoziua" aldarripean. Gipuzkoako Foru Aldundia klima larrialdiaren aurrean

erakusten ari den "muturreko hipokresia" salatu nahi izan zuten, "urteko 200.000 tona CO2 baino gehiago eta ehunka mila kilo nitrogeno oxido atmosferara isuriko duen erraustegia pizteko bezperetan, "klimaren alde" ari direla adierazten dutelako".

Larreko Mahaia eratu dute



Indarrak batu eta plataforma berri bat sortu da: Larreko Mahaia.

Bizi dugun krisi ekologikoaren eta planetaren zein jendartearen etorkizunarekin kezkatutako eragile anitzek, egoerari irtenbide bat emateko indarrak batu eta Larreko Mahaia osatu dute. Tartean dira, CCOO, LAB, STEILAS eta EHNE sindikatuak, Greenpeace eta Eguzki talde

ekologistak, Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, Extinction Rebellion edota GuraSOS. Lehen urrats gisa, Gipuzkoako agintariek aldaketa klimatikoaren aurka duten konpromisoa benetakoa dela erakusteko, Zubietako erraustegia geratzeko eskatzen dute.

Administrazioaren jarrera iluna parodiatu dute

Erraustegiko kea Aldundi-ko leihoetan gora ikusi zuten joan den astean. Garai batean proiektatua zegoen Zubietako erraustegi gaindimentsionatua geratu zeneko seigarren urtemuga egunez, oraingoa, laster piztu dezaketaren aurrean administrazioak duen jarrera obskurantista salatu zuen Errausketaren Aurkako Mugimenduak azaroaren 13an, gipuzkoarron etxe atarian, Foru Aldundiko egoitza atariko Gipuzkoa plazan egin zuen parodiaren bidez.

Ahaldun Nagusi Markel Olanoz moztururiko mugimenduko kideetako batek Zubietako erraustegia piztuko lukeen unea irudikatu zuen, jokaera honen aurkako oihu eta alarma hotsen artean. Suhiltzaile paperean sartuta, sua itzaltzeko prest zen beste talde bat, buzo zuriekin batera.

Informazio faltarekiko kezka
“Prozesu osoa hasieratik izaten ari da iluna; haiek nahi duten informazioa soilik eta haiek aukeratzen dituzten komunikabideetan agertzen da”, zioen administrazioari buruz “Sua ez



Suhiltzaile paperean sartuta, sua itzaltzeko prest zen talde bat irudikatu zuten.

MATXURAK

Hilabeteotan gertatu bezala, matxura gehiago izan eta ezkutatuko dituzten beldur dira

piztu” aldarripean egin zuen parodian, Errausketaren Aurkako Mugimenduak. Azken aldian argitaratu direnak ekarri zituen gogora; transformagailu baten matxurak 4-6 hilabetez atzeratuko duela erraustegia

martxan jartzea edota erraustegian ari den enpresa batek “bertan egiten ari diren irregulartasun askotariko batzuk konpontzea eskatu du”.

Gaineratu zutenez, “piztu aurretik arduradunak izaten ari diren jarrera gezurti eta manipulatzailea ikusita, beldurra ematen du piztu ondoren emango duten informazioak eta batez ere ezkutatuko dituztenak nolakoak izango diren”. Kezka argia dute: “No-

lako informazioa emango dute erraustegiak sortuko duen kutsaduraz, bertan erreko dituzten hondakinen osaketaz eta jatorriaz?”. Hilabeteotan gertatu bezala, matxura gehiago izan eta ezkutatuko dituztela ohartarazten dute, eta “hauen ondorioz sortuko den airearen kutsadura biderkatuko da, labearen tenperatura jaistearekin batera isurtzen diren gas eta partikulak ugariago eta pozoi-
tsuago bihurtzen baitira”.

Anerreka: “Tratatu gabeko keak dira”

Anerreka Ingurumen Elkartek azaroaren 16an irudi bidez jaso ahal izan zuena salatu nahi izan zuen, NOAUA!ra helarazitako bideoan. “UcINETIK zuzenean ateratzen diren keak ikusi ahal izan ditugula salatu nahi dugu”.

Keon izaera nabarmendu nahi izan dute, urte luzez konpontzeke segitzen duen arazoa gogora ekartzearekin batera. “Tratatu gabeko keak dira, eta eragin zuzena

dute Usurbilgo aire kalitatean, besteak beste PM 2.5etan. Gaurkoan ikastolako norabidea dute, baina edozein izan daiteke kaltetutako kokapena”, zehaztu du, herriko ur, aire eta lurraren kalitatearen alde lanean diharduen aipatu bilguneak.

Egoera honen aurrean, “berri ere egoera honekin bukatzeko hartu beharreko neurriak ezartzeko eskatzen dugu, eta ingurumena eta usurbildarron osasuna babestea”.



“Tratatu gabeko ke hauek eragin zuzena dute Usurbilgo aire kalitatean, besteak beste PM 2.5etan”, Anerreka Ingurumen Elkartetik jakinarazi dutenez.

Erraustegiko kutsagaiak, Batzar Nagusietan eztabaidagai

Zubietako erraustegia pizten badute, hortik aurrera aipatu azpiegiturak sortuko dituen kutsagaiak eztabaidagai izan dira azken asteotan Gipuzkoako Batzar Nagusietan. EAJ eta PSE-ren foru gobernua interpelatu zuen EHBilduk urriko osoko bilkuran gai horri buruz, azarokoan mozioa aurkeztu zuen hasieran. Elkarrekin Podemosekin batera erdibideko zuzenketa bat azkenean. Foru gobernua-ren gehiengoak baztertu egin zuen eta EAJ-PSEk aurkezturiko osoko zuzenketa onartu zen.

EHBilduren mozioa Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari zuzendurikoa zen; erraustegiko zepak zein zabortegetan isuriko diren eta Jaur-laritzak zepak eraikuntzan baliatzeko aukera arautzean non erabiliko diren argitzea eskatzen zuen koalizioak. Erraustegia pizten dutenetik plantak isuriko dituen toxikoen “jarraipen zorrotz bat” egitea baita, “maiztasun egoki batekin” eta hauen emaitzak “erabat publikoak izatea”. Eta errautsen eta zepen kasuan “neurtzeko eta zehazteko jasoko duten tratamendua eta jalkiko diren kokapen zehatza”, eta honen berri publikoki ematea. Hitz



Erraustegia pizten badute, hortik aurrera aipatu azpiegiturak sortuko dituen kutsagaiak eztabaidagai izan dira azken asteotan Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

BATZAR NAGUSIETAN
Gipuzkoarrok ordaindutako erraustegian gertatzen denaz jakiteko eskubidea defendatu zuen Elkarrekin Podemoseko batzarkide David Olidenek

gutxitan, erraustegiari buruzko informazioa eta gardentasuna.

EHBilduren batzarkide Ainhoa Intxaurrendietak aurkeztu zuen mozioa. Gogorarazi zenez, Gipuzkoan etxean sortzen ditugun 200.000 tona hondakin ez arriskutsu erretzeko gaitasuna izango duen Zubietako erraustegitik, “200.000 CO2 tona irtengo dira, 40.000 tona eskoria eta 4.000 tona errauts toxiko sortuko dira, gehi dio-

xinak, furanoak, beruna, artsenikoa... Eta gero aldaketa klimatikoaren aurka gaudela esango dugu”. Ingurumen baimen bateratuak gai kutsakorrok neurtzea agintzen duela gogorarazi zuen “baina ez dira jarraian egiten”. Laginak etengabe hartzeko teknologia zergatik ez den aplikatzen galdetzen zuen. Administrazioari erantzukizunez jokatzeko eskatu zion, “kezka handia dute Zubietan inguruan bizi diren herritarrek eta gardentasunez kezka horiek uxatzea litzateke gure ardura”.

Gipuzkoarrok ordaindutako erraustegian gertatzen denaz jakiteko eskubidea defendatu zuen Elkarrekin Podemoseko batzarkide David Olidenek. “Herritarren interesak garden-

tasunez defendatzera”, alarma piztea eragoztera zuzendua zegoela haien zuzenketa.

EAJ-k eta PSE-k osoko zuzenketa aurkeztu zuten. PSE-ko ordezkari Susana Garcia Chuecak erraustegiko kutsagaiak zabortegetara ez zi-rela isuriko, eta egun gai hau kudeatzeko foru araudiaren faltan, “enpresa esleitzailak beste merkatuetara eraman asmo ditu, tartean frantziarrera” iragarri zuen. Eskorien erabilerarako araudia lantzea eskatu zion Eusko Jaurlaritzari. Airearen kalitatea neurtzeko inguruotan jarriak dauden kabinek bildutako informazioa Jaurlaritzaren web orrian aurki daitekeela gaineratu zuen. Zabortegetien eredu gaitetik, erraustegia lehenetsi zuen hondakinen tratamendurako alternatiba bezala.

Ildo beretik mintzatu zen EAJko batzarkide Andrea Arriola. Erraustegiak “gure mendekotasun energetikoa murrizten lagunduko digu” gaineratu zuen, “erregai fosil gutxiago erosi beharko dire-lako”. Bere esanetan, “badakigu ez dagoela konponbide perfekturik, ezta zero kutsadura edo zero hondakinik ere baina ahalik eta maila baxue-na lortzeko politiken alde egin behar dugu”.

Erraustegiak, zabortegeiak atzetik

Entzundakoen aurrean, hitza hartzeko bigarren errondan, injustutzat jo zuen EHBilduk foru gobernua “zepak Frantziara eramango direla tratatzera” esan izana. Berriz ere herritarrei informazio asko falta zaiela berretsi zuen. Gogorarazi zien, “erraustegi

gutziek gai kutsakorrentzako zabortegei arriskutsuak dituzte atzetik”.

PSE-k berriz ere zabortegeiak eta erraustegiak kontra jarri, erraustegia defendatu eta hobetsi zuen “eskoria guztiak erreko dira” esanez. Herritarrek lasaitu nahi izan zituen,

erraustegiarekin hondakinen arazoa konponduko dela gaineratuta. Bertan baliatuko den teknologia ingurumenarekin errespetuzkoa izango dela zioen, “Europako herrialde aurreratuenekin bat eginez”. 45.000 etxe hornitzeko energia jasangarria sortuko omen du.

EAJ-ren esanetan, “tratamendu berri hauek partikulen izaera arriskutsua gutxituko dute”, hondakinen arazoa konpontzearekin batera. “Konponbidea martxan dago jada” bere esanetan, “legearekin bat datorrena, gardentasuna oinarri duena”.

Kluben arteko Gipuzkoako Txapelketan, Pagazpe pilota elkartea txapeldunorde



Pagazpe pilota elkarteko Santxo eta Urruzolarentzat izan ziren txapeldunordeen garaikurrak. Argazkia: Uztarria.

Ilunpe pilota elkarteko pilotariak 22 eta 11 irabazi zuten Usurbilgo Pagazpe pilota elkarteko Santxo eta Urruzolaren aurkako finala. Kluben arteko ezker hormako Gipuzkoako Txapelketa pasa den larunbatean jokatu zen Tolosako Beotibar pilotalekuan.

Azpeitiko pilota elkartea da klub en arteko ezker hormako

Gipuzkoako Txapeldun berria. Ilunpeko Unai Alberdi eta Unai Salegi jaun eta jabe izan ziren azaroaren 16an Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu zen norgehiagokan.

Santxo eta Urruzola, txapeldunorde

Usurbilgo Pagazpe pilota elkarteko Santxo eta Urruzolarentzat izan ziren txapeldunordeen garaikurrak.

Klub en Arteko Gipuzkoako Txapelketa, finalak

1. Jubenilak, 1. maila:

Mundarro (Lizeaga-Lizeaga) 19
Tolosa 2 (Amiano-Sudupe) 22

2. Nagusiak, 2. maila:

Mundarro (Loidi-Sanchez) 20
Añorga (Oliden-Orbegozo) 22

3. Nagusiak, 1. maila:

Ilunpe (Alberdi-Salegi) 22
PAGAZPE (Santxo-Urruzola) 11

Futbola Haranen

Azaroak 23, larunbata

■ 9:30 Alebin eskola kirola, atletismoa.

■ 11:30 Infantilak:

Udarregi Usurbil F.T. B-Texas

■ 12:30 Kadeteak, areto

futbola (Oiaro Kiroldedia):

Usurbil F.T.-Antiguoko

■ 15:30 Erregionalak:

Usurbil F.T.-Axular

Azaroak 24, igandea

■ 11:30 Futbol Eskola (2008koak):

Usurbil F.T.-Intxurre

Eskubaloia Oiardon

Azaroak 23, larunbata

Eskola Kirola

■ 10:00 Infantil neskak,

Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi B Usurbil-Egia 1

■ 11:15 Infantil mutilak,

Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi A Usurbil-

Aloña Mendi K.E.

Usurbil K.E.

■ 16:00 Kadete mutilak,

Gipuzkoako Txapelketa:

Usurbil K.E.-Amenabar B ZKE

■ 17:45 Jubenil neskak,

Gipuzkoako Txapelketa:

Usurbil K.E.-Caravanas Oñate

Aloña Mendi K.E.

■ 19:30 Kadete neskak,

Gipuzkoako Txapelketa:

Usurbil K.E.-Bera Bera Urdina

Azaroak 24, igandea

■ 11:30 Alebin neskak,

errendimendua:

Usurbil K.E.-Bera Bera

Irisasi BTT lasterketako izen-ematea

Zabalik dago kirolprobak. com atarian, urtarilaren 26an ospatuko den Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proba- barako izen ematea.



ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalearren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berriua berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaueus

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxe baten bila gabiltza alokairuan edo salmentan Usurbilen. 688 714 317. Deitu astean zehar 16:30etik aurrera edo asteburuetan.

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserrri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. T616 027 636

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informak ditugu. 675595294

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Ar-

duratsua eta garbia. 612 487 017.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Yamaha Virago 250 XV motorra salgai eta osagarriak opari. 990 euro. 617701173.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negozia garria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali

CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegiaren. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetoako kudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetoan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo

umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Emakume Usurbildar bat naiz eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Esperientziarekin. 616 273 785

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta

Heriotzak

Sorkunde Altuna Garmendia

62 urterekin hil zen azaroaren 16an Usurbilen



esperientziaduna. 686 825 587.

Ordutako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketari lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin

pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak

edo umeak zaintzen. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtariletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen.

Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Segituan lanean hasiko nintzake. 637106649.

BESTELAKOAK

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteak bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurriko da eta berri berria dago. 650 027 123.

Urtea zehar ingeleseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesezko arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....943 371 951
Atez ateko bulegoa.....900 776 776
Udaltzaingoa.....943 361 112
Udal zerbitzuak (Brigada).....943 370 148
Sexu Aholkularitza Gunea.....697 919 516
Gizarte Zerbitzuak.....943 377 110
Diputazioa - Basetxea.....943 361 215
Bake Epategia.....943 372 336
Udarregi Ikastola.....943 361 216
Haur Eskola.....943 374 061
Zubietako Lanbide Eskola.....943 364 600
Zubietako Herri Batzarra.....943 372 077
Hastapen tailerrak.....943 360 465
KZgunea.....943 023 684
Oiaro Kiroldetgia.....943 372 498
Sutegi Udal Liburutegia.....943 360 692
Zumarte Musika Eskola.....943 371 594
Etumeta AEK euskaltegia.....607 609 379
Kalezar Eguneako Zentroa.....943 365 249
Gure Pakea Zahar Egoitza.....943 368 770
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....943 371 751
Arrate Zahar Egoitza.....692 898 492
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....943 361 239
Noaia! Kultur Elkartea.....943 360 321

Abere-Landare Babeslea.....943 376 650
Taxia (Angel).....607 928 770
Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....677 373 466
Eusko Tren.....943 470 976
LurraldeBus.....943 000 117
Korreos - posta zerbitzua.....943 362 894
Anbulategia.....943 362 013
Amenabar botika (lehen Oa).....943 376 076
Iturralde botika.....943 363 395
DYA.....943 464 622
Gurutze Gorria.....943 272 222
Emergentziak.....112
Genero-indarkeria, arreta ..900 840 111 / 016
Gonzalez Ehorztetxea.....943 362 163
Kutxabank.....943 361 202
Euskadiko Kutxa-Laborala943 364 740
Banco SabadellGuipuzcoano.....943 370 006
Banco Popular Español.....943 370 411
BBVA.....943 377 155
Caja Rural Kutxa.....943 368 842
Argindarra - Iberdrola.....901 202 020
Gas naturala - Naturgas.....902 123 456
Telefonica.....1004
Euskaltel.....900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 21 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 22 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 23 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 24 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 25 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 26 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 27 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Azaroak 21 - Abenduak 1

Osteguna 28 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 29 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 30 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 01 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda azaroa

22 ostirala

- **Erle Eguna:** "Erletik sortutako produktuen onurak" hitzaldia. 19:00etan Potxoenean. Hizlaria: Miguel Angel Jimenez. Antolatzailea: Erle Lagunak.

23 larunbata

- **Palestinaren aldeko eguna.** Ikus 15. or.
- **"Xua Gurasoekin Etxera" martxa** Usurbildik Oriora. Ikus 5. or.
- **Harria Hitz ibilaldi gidatua.** 10:00etan Usurbilgo frontoian.

24 igandea

- **Erle Eguna.** Egun osoko jaia.
- **Larriki gaixo diren presoek eskubideen aldeko ekitaldia.** 13:00etan Mikel Laboa plazan.
- **Peña Pagola pilota elkartearen 50. urteurren jaia.** Egun osoko jaia.

XXI. Erle Eguna

Urteko hitzordu gozoena ate joka dugu; 21. Erle Eguna, ekitaldiokin:

Azaroak 22, ostirala

- 19:00 Hitzaldia Potxoenean: "Apiterapia: Erletik sortutako produktuen onurak" hitzaldia. Hizlaria: Miguel Angel Jimenez.

Azaroak 24, igandea

- 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.
- 11:00-14:00 Erakusketa, postuetako salmenta, marrazki erakusketa, bideoak Sutegin. Euskal Herriko XXI. Ezti lehiaketa eta gozogintza lehiaketa.
- 13:30 Erleek beraiek ekarritako sari-banaketa: Ezti Lehiaketako irabazleak / Go-



Igandean eztigile eta gozogile ugari batuko dira frontoian.

zogintzako irabazleak / Marrazki erakusketa. Ezti desberdinen dastaketa. Antolatzailea: Erle Lagunak.

Familientzako hitzaldia, Hitz-Ahoren eskutik

Hitz-Aho guraso elkarteak eta Udaleko parekidetasun sailak hitzaldi bat antolatu dute, *Familiak ere jendarte parekide baterantz* izenburupean. "Familia ere hezkuntza eragile bat izanik, badu honetan zer esanik eta zer eginik. Horretaz eta gehiagotaz solastu gaitezke hitzaldi honetan".

Azaroak 21 osteguna

- 17:00etan, Ikastola gorrian.

Kalejira eta kontzertuak, musikarien egunean

Santa Zezili eguna ospatuko dute ostegun honetan.

Azaroak 21, osteguna

- 18:00 Kalejira udaletxe aurreko plaza: trikitixa-pandero taldea, Musika Txokoko eta abesbatzako ikasleekin lagunduta eta Txaranga.
- 19:00 Sutegin: Talde instrumentalak eta abesbatzak. Sarrera: doan.
- Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

Datozenak

Zientzia gaien inguruko ipuinak udal liburutegian

Ana Galarragak zientzia oinarri dituzten kontakizun bitxiak eta esperimentu bitxiak azalduko ditu.

- Azaroak 27 asteazkena, 18:00etan.
- Sutegi udal liburutegia.
- Adina: 6 urtetik gorakoentzat.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



Ana Galarraga arituko da ipuin kontalari lanetan.

"Zoaz pake santuan"

Aginagako Eliza Zaharrean

Euskararen Eguna dela eta, *Zoaz pake santuan* antzerki saioa antolatu dute Aginagan. Abenduaren 1ean igandearekin, 18:00etan Aginagako Eliza Zaharrean.

- Aktoreak: Mikel Laskurain eta Ane Gabarain.
- Sarrerak 5 euro eta aldeztu aurretik Arrate Tabernan eros daitezke.
- Informazio gehiago hurrengo emaillean: gurasoelkarteaz@aginaga.eskola-txikiak.eus

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA
SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!
ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA
943 36 10 79

Otar-Goxo
Elizkargariak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil


JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008



gabonetako apaingarri eta dekorazioan aukera zabala!

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



USURBILEN abenduak 1 kiroldegian 11:30

SARRERAK: 7€ aldeaz aurretik. (Bordatxo, Lizardi eta Noaua!) Egun berean 8€ kiroldegian, (12 hilabetetik gora sarrera ordaintzen du)

noaua



Disfrutez Urtine



LASER DIODO IRAUNKORRA

LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN

Depilatzeaz nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra lortzeko eskaintza paregabea eskaintzen dizugu URRIAN eta AZAROAN:

URRITIK AURRERA LASER GARAIA!
eskatu hitzordua!

INTZA
ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@eluskainet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behe, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen
koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



PLAKODUR
Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



Antonio
URRUZOLA
AROZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Inaki
AROZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

USURBIL
J. R. IBARGOEN S.L.

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoen.azotzgi.net jrbargoen@azotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas
Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntipax, 3 - 3-B - 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

zuri
arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFINATZAKO GRENIOAK · KOMUNEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behe • 943 36 80 04



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39